



Prentsa oharra Nota de prensa



2020ko martxoaren 8a EMAKUMEEN NAZIOARTEKO EGUNA

Igandean, Emakumeen Nazioarteko Eguna izango da. Aldarrikapenerako egun hori beharrezkoa zaigu eskubide berdintasuna eskatzeko, soldata arraila desagerrarazteko, eta sexu erasoak behingoz amaitzeko, besteak beste.

Donostiako Udalak erakunde adierazpen bat onartu du, eta, martxoaren 8aren harira, Udalean ordezkariak duten alderdi guztietako ordezkariak jakitera emango dute ostiralean.

Berdintasuneko zinegotziak, Duñike Agirrezabalaga sozialistak, hau nabarmendu du: “Urrats garrantzitsuak egin dira gure hirian. Hala ere, lan handia dugu egiteko, gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna oso-oso izan dadin. Erakunde publikoek ekintzak eta programak sustatu behar dituzte, batetik, arraila murrizteko, eta, bestetik, gure gizartean gertatzen diren bereizkeria egoerak desagerraraz ditzaketen jarrerak eta erabilerak bultzatzeko; bereziki, emakumeen aurkako abusuak eta erasoak direla eta”.

Prentsa oharra

Nota de prensa



Aurten ere hainbat jarduera antolatu dira martxoaren 8aren harira. Aste bukaeran, udaletxeko argiztapena morea izango da.

Donostiako Hautxokoek eta Gaztelekuek, Donostia Kulturak, Berdintasuneko Departamentuak, emakumeen elkarteek eta mugimendu feministak askotariko jarduerak antolatu dituzte.

Aurten, egitarau osoa biltzen duen kartela Concetta Probanza diseinatzaileak egin du. Hartan, emakumeen aniztasuna adierazten da, eta indarra zein aliantzak nagusitzen zaizkie ezberdintasunei. “Emakume guztiok ezberdinak gara, eta, askotariko jatorriak, adinak, kulturak, formak, gaitasunak eta aniztasunak abiapuntu hartuta, erakutsi nahi dugu emakumeok bat eginda hobeto bizi gaitzkeela eta patriarkatuaren bereizkerien aurka borroka egin dezakegula” azpimarratu du Agirrezabalaga zinegotziak.

Gazteriako Departamentuak jarduerak antolatu ditu Hautxokoek eta Gaztelekuen sarean, dagozkion adin tarteetara egokituak. Ekintza guztiek helburu hauek dituzte: emakumeen ekarpenak ezagutzea, erreferenteak diren emakumeak ikusgai egitea, eta bereizkeria kasuak identifikatzea. Horretarako, rol aldaketak, jolasak, ikus-entzunezkoak, horma irudiak, collageak, eta eskulanak erabiliko dituzte.

Kultur etxeen sareak ere egitaraua osatu du sarritan, emakumeen elkarteek eta auzoetako talde feministek lagunduta. Egitarauaren barnean, hitzaldiak, zine proiektioak, musika kontzertuak, eta hainbat erakusketa jaso dira. Informazioa webgune honetan dago: www.donostiakultura.eus.

Berdintasuneko Departamentuan, autodefentsa feminista lan ildo garrantzitsu bat da. Tailerrak antolatzen dira, eta, haietan, indarkeria matxistak identifikatzeko eta horiei aurre egiteko lan egiten da. Hil honetan, martxoaren 14an, 21ean eta 28an egingo da ikastaroa. Saiok lau ordu irauten dute, eta Emagin elkarteak antolatzen ditu. Guztira, 12 ordu dira. Izena eman daiteke www.donostiakoemakumeenetxea.com webgunean. Informazio gehiago nahi izanez gero, deitu 943483470 telefono zenbakira.

Donostiako Udalak eta Berdintasuneko Kontseiluak parte hartuko dute mugimendu feministak antolatu duen manifestazioan.

Oharra: xehetasunak, eskuko egitaraua dela eta.

- Gladysen leihoa filma Loiolako Kultur Etxean, martxoaren **12an**, 19:15ean.
- Las Pitiuseren taldearen Qué contamos cuando contamos antzezlanaren **5ean** izango da Larratxon, ez martxoaren 9an.